

Gaurkoa »

Ablazioa



Lau eta zortzi urte bitartekoei mozten dizkiete sexu organoak maizen, baina baita jaioberriei ere. **BERRIA**

Ablazioa datutan

■ **%90.** Ablazioak haurren heriotzen %90 eragiten ditu Somalian, Gambian, Etiopian, Sudanen, Togon, Ghanan, Senegalen, Nigerian, Malin, Beninen, Liberial, Sierra Leonan, Egipton eta Kenyan.

■ **%20.** Ablazioa jasan duten emakumeetatik %20k ezin dute haurrik izan.

■ **%85.** Somalian, Egipton eta Malin dago zabalduen emakumeei sexu organoak mozteko praktika; hiru herrialde horietan emakumeetatik %80k sufritu dute ablazioa.

■ **140 milioi.** Munduan 100 eta 140 milioi emakumeren artean elbarritu dituzte ablazioaren bitartez.

Esanekoa edo puta

Egunean 8.000 neska koskorri mozten dizkiete sexu organoak, gizonen baten gustuko bihurtu, ezkondu eta gizartean leku bat izan dezaten. Hori salatzeke nazioarteko eguna da gaurkoa.

Ixiar Zubiaurre

Klitoriari zakilaren eitea hartzen diote munduan milaka miopek. Horregatik defendatzen dute ablazioa, emakumeak emakume bihurtzen dituelako; gizonarenak egiten dituelako. Eta, beraz, elkarrengandik diferente. Sexua mozten diotenean, haurrak haur izateari uzten dio, eme jaiotzeko. Familiaren izen onagatik, neska koskorrak sexua mozten du, eta *birjintasuna* josten. Norbait ez bada, zerbait izateko beharrak bihurtzen baititu halako praktikak sistematiko; ezinbestean norbere burua zapaltzea eragiten duena. Menpekoa edo puta izatea, bietako bat aukeratu beharrak betikotzen du emakume-objektu sexurik gabea.

«Neskato bat agure batekin ezkontzen dutene-



Neska koskor bati sexu organoak mozten, hainbat emakumek eusten dioten bitartean. **BERRIA**

an, ablazioa dotea balitz bezala ematen diote senargaiari. Gizonak emakumea eta haren birjintasuna eros baditzake, berea den zerbait balitz bezala hartzen du; salgai bihurtzen du emaztea». Eua Dorkenoo emagin ghanatarrek ahalegin franko egin ditu ablazioaren aurkako kontzientziatze lanetan. Gaurkoa egun seinalatua du horretarako, titularrak gutxitan lortzen dituen arazo bati hautsak kentzeko, hain zuzen: Ablazioaren Aurkako Nazioarteko Eguna. «Erresuma Batuan emagina nintzen Somaliako emakume hura artatu nuen. Sekula ez nuen halakorik ikusi; emakume hari egin zioten ablazioa aberrantea zen. Zur eta lur utzi ninduen. Moztu eta josi zioten moduagatik, ezin zen haurraz erditu. Berrito moztu behar genion, haurra izango bazuen».

Luzera arazo larriak eragiten ditu ablazioak; emakume askok ezin izaten du haurrik izan

Unicef Nazio Batuen Haurren Laguntzarako Funtsak emandako datuen arabera, egunean 8.000 haurrek sufritzen dute ablazioa. Munduan gutxienez 28 herrialdetan egiten da; gehienbat Afrikan eta Asiako hegoaldean, baina baita Europan ere. «Hamar urte nituenean, amonak ibaira eramango ninduela esan zidan. Txikia nintzen artean, eta ez nintzen ohartzen zer gertatzen ari zen. Hara eraman nindutenean arropak kendu zizkidaten. Begiak estali eta lurrean etzanarazi ninduten», gogoratu du Hanna Koroma Sierra Leonako emakumeak. «Lau emakumek heldu zidaten eta beste bat bularraren gainean jarri zitzaidan, mugi ez nendin. Ahoan zapi bat sartu zidaten, eta gero... moztu egin zidaten».

Koromari gogoz kontra kendu zioten sexua. Haatik, hainbat herrialdetan ablazioa hain dago sustraitua, non emakumeek eurek eskatzen duten elbarri egin ditzaten. «Mina jasanezina zen, eta behin eta berriro altxatzen ahalegintzen nintzenez, odol asko galdu nuen. Ez ninduten anestesiatu; eta odola galtzearen ondorioz, anemia izan nuen. Denbora luzez, pixa egite hutsak mina eragiten zidan, eta baginako infekzioak izan nituen», azaldu du Koromak.

Kalte larriak osasunean

Ablazioaren bitartez, emakumei sexu organo guztiak edo hainbat mozten dizkiete, sexuaz goza ez dezaten —eta, beraz, ezkontzatik kanpo beste inorekin sexu harremanik izan ez dezaten—. Kasu gehienetan, nerabezarora iritsi ez diren neskatok elbarritzen dituzte; lau eta zortzi urte bitarte izaten dituzte klitoria edota aluko ezpainak mozten dizkietenean. Adituek ohartarazi dutenez, baina, gero eta maizago egiten zaie ablazioa jaioberriei: neska asko jaiotzean egun gutxira elbarritzen dituzte.

Sexu organoak moztu ondoren, zenbait herrialdetako sasisendagileek alua josten diete neska koskorrei; pixa egin eta hilekoa izan dezaten, zulo bakar bat uzten diete zabalik. Eta horietako neska koskorren bati ezkontzeko garaia iristen zaionean, senarrak jositakoa atzera berriro hausten dio. Etengabeko mina eragiten dute halako praktikek, eta luzera osasun arazo larriak eragiten dituzte; emakume askok, besteak beste, ezin izaten dute haurrik izan. Beste asko, hil egiten dira, odolustuta.